101 zk. / 2020 urtea

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2020ko martxoaren 23tik 30era.**

**I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

**Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 2020/03/26**

- EBAZPENA, Lan eta Gizarte Seguran tza ko Lurralde Ordezkariarena, Gi puz koako Elikadura-Merkatari tza eta Industriako lan Hi tzar men Kolektiboaren 2020rako soldata berrikuspenaren eta 2017ko soldata-taulen zuzenketaren erregistro, gordailu eta argitarapena agint zen duena (20000295011981 kodea). 5 or.

**Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria 2020/03/30**

- EBAZPENA, 2020ko otsailaren 28koa, Laneko eta Gizarte Segurantzako zuzendariarena, zeinaren bidez erregistratu, gordailutu eta argitaratzen baita Batzorde Paritarioak hartutako erabaki bat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresen hitzarmen kolektiboaren soldata-taulak onartzeko 2020. urterako (hitzarmen-kodearen zenbakia: 86002235012003). 1729 xedapena – 3 or.

**II.- XEDAPEN OROKORRAK:**

**E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2020/03/24**

- **OGASUN MINISTERIOA**

  - **Alarma egoera. Administrazioko kontratazioa.** – Ebazpena, 2020ko martxoaren 20koa, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, inbertsioaren egiaztapen materialaren arloan hartu beharreko neurriei buruzkoa, COVID-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz deklaratutako alarma egoerak irauten duen bitartean. 2020-4006 xedapena - 3 or.

  - **Alarma egoera. Kontrol ekonomiko-finantzarioa.** – Ebazpena, 2020ko martxoaren 23koa, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen den 2020ko martxoaren 17ko Ministroen Kontseiluaren Akordioa, zeinaren bidez premiazko neurriak eta salbuespenak hartzen diren Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusiaren kontrol ekonomiko-finantzarioaren kudeaketaren kontrolaren alorrean, COVID-19 dela-eta. 2020-4007 xedapena - 3 or.

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. – Alarma egoera. Bidaiarien garraioa.** TMA/273/2020 Agindua, martxoaren 23koa, bidaiarien garraio zerbitzuak murrizteko jarraibideak ematen dituena. 2020-4008 xedapena - 2 or.

- **OSASUN MINISTERIOA**

  - **Alarma egoera. Urak.** - SND/274/2020 Agindua, martxoaren 22koa, zeinaren bidez neurriak hartzen diren gizakien kontsumorako ur hornidurako eta hondakin uren saneamenduko zerbitzuetan. 2020-4009 xedapena - 3 or.

  - **Alarma egoera. Egoitzadun gizarte zerbitzuen zentroak.** - SND/275/2020 Agindua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez neurri osagarriak ezartzen diren antolamenduari dagokionez eta informazioa emateari dagokionez, egoitza izaera duten gizarte-zerbitzuen zentroen alorrean, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren kudeaketarekin lotuta. 2020-4010 xedapena - 4 or.

  - **Alarma egoera. Sendagaiak.** - SND/276/2020 Agindua, martxoaren 23koa, zenbait sendagairi buruzko informazioari, hornidurari eta fabrikazioari buruzko betebeharrak ezartzen dituena, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoeran. 2020-4011 xedapena - 12 or.

  - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.** – Jarraibidea, 2020ko martxoaren 23koa, Osasun Ministerioarena, interpretazio irizpideak ezartzen dituena COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren kudeaketarako. 2020-4012 xedapena - 2 or.

**2020/03/25**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA**

  - **Premiazko neurriak. -** Martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege-dekretuaren akats zuzenketa; horren bidez, premiazko neurriak hartu dira COVID-19aren eragin ekonomikoari aurre egiteko. 2020-4025 xedapena - 1 or.

  - **Alarma egoera. –**Martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren akats zuzenketa; horren bidez, premiazko salbuespenezko neurriak hartu dira COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko. 2020-4026 xedapena - 1 or.

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA**

  - **Alarma egoera. Ostatu turistikoak.** - TMA/277/2020 Agindua, martxoaren 23koa, zeinaren bidez oinarrizko zerbitzu izendatzen diren zenbait ostatu turistiko eta xedapen osagarriak hartzen diren. 2020-4027 xedapena - 15 or.

  - **Alarma egoera. Mugikortasuna.** - TMA/278/2020 Agindua, martxoaren 24koa, zenbait baldintza ezartzen dizkiena mugikortasun zerbitzuei, pertsonak, ondasunak eta lekuak babesteko. 2020-4028 xedapena - 3 or.

  - **Alarma egoera. Animalien garraioa.** - TMA/279/2020 Agindua, martxoaren 24koa, neurriak ezartzen dituena animalien garraioari dagokionez. 2020-4029 xedapena - 2 or.

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Alarma egoera. Aireko garraioa.** - PCM/280/2020 Agindua, martxoaren 24koa, 2020ko martxoaren 24ko Ministroen Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena; horren bidez, aldatu egiten da 2020ko martxoaren 10eko Ministroen Kontseiluaren Akordioa, premiazko ezohiko neurriak ezartzen dituena COVID-19aren hedapena eta kutsatzea mugatzeko, Italiako Errepublikaren eta Espainiako aireportuen arteko hegaldi zuzenak debekatuta. 2020-4030 xedapena - 2 or.

- **ESKUBIDE SOZIALEN ETA 2030 AGENDAREN MINISTERIOA. - Alarma egoera. Mendekotasun egoeran dauden pertsonak.** - Ebazpena, 2020ko martxoaren 23koa, Eskubide Sozialen Estatu Idazkaritzarena, Gizarte Zerbitzuen eta Autonomiaren Aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren Lurralde Kontseiluaren erabakia argitaratzen duena. Erabaki horrek hein batean aldatzen du 2008ko azaroaren 27ko Erabakia, Autonomiaren eta Mendekotasunaren Arretarako Sistemako zentro eta zerbitzuen kalitatea bermatzeko egiaztatze-irizpide komunei buruzkoa. 2020-4031 xedapena - 2 or.

**2020/03/26**

- **BARNE MINISTERIOA**

  - **Alarma egoera. Mugak.** - INT/283/2020 Agindua, martxoaren 25ekoa, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren ondorioz berrezarritako lurreko barne-mugetako kontrolak luzatzen dituena. 2020-4064 xedapena - 2 or.

- **Alarma egoera. Premiazko neurriak.** - INT/284/2020 Agindua, martxoaren 25ekoa, martxoaren 20ko INT/262/2020 Agindua aldatzen duena. Horren bidez, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma egoera deklaratzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretua garatzen da, trafikoaren eta motordun ibilgailuen zirkulazioari dagokionez. 2020-4065 xedapena - 3 or.

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA**

  - **Alarma egoera. Abiazio zibila.** - TMA/285/2020 Agindua, martxoaren 25ekoa, zeinaren bidez ezohiko malgutasun neurriak hartzen diren Europako Batasunaren araudiek arautu gabeko abiazio zibilaren alorrean, COVID-19ak (koronabirusa) eragindako krisi globalarekin lotuta. 2020-4066 xedapena - 7 or.

  - **Alarma egoera. Itsasoko nabigazioa.** - TMA/286/2020 Agindua, martxoaren 25ekoa, luzatu egiten duena Italiako Errepublikatik datozen bidaiari ontzien eta edozein lekutatik Espainiako portuetarako gurutzaontzien sarreraren debekua, COVID-19aren hedapena eta kutsatzea mugatzeko. 2020-4067 xedapena - 2 or.

  - **Alarma egoera. Abiazio zibila.** – Ebazpena, 2020ko martxoaren 18koa, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren Zuzendaritzarena, salbuespena ematen duena, 2018/1139 (EB) Erregelamenduaren 71. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, lizentzien, gaikuntzen, hegaldi-tripulazioen ziurtagirien, instruktoreen, aztertzaileen, aire-zirkulazioko kontrolatzaileen eta aireontzien mantentze-lanetarako lizentzien edukitzaileen balio-aldiak luzatzeko, bai eta horiek betetzeko ordezko metodo bat ere, 965/2012 (EB) Erregelamenduaren Aro.Gen.120n ezarritakoaren arabera, tripulazioen jarduera-koadranteen argitalpenean eskatzen den gutxieneko aurrerapena murriztekoa, COVID-19ak (koronabirusa) eragindako krisi globalak sortutako egoerari dagokionez. 2020-4068 xedapena - 7 or.

- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. - Alarma egoera. Berme publikoak.** – Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Ekonomiako eta Enpresaren Babeserako Estatu Idazkaritzarena, 2020ko martxoaren 24ko Ministroen Kontseiluaren Akordioa argitaratzen duena. Horren bidez, enpresa eta autonomoentzako ICOren abalen lerroaren lehen tartearen ezaugarriak onesten dira, COVID-19aren ondorio ekonomikoak arintzeko. 2020-4070 xedapena - 6 or.

- **NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA MINISTERIOA. – Administrazio epeak. -** APA/288/2020 Agindua, martxoaren 24koa, zeinaren bidez aldatzen diren Espainiako mahastizaintza eta ardogintzaren sektoreari 2019-2023 aldirako laguntza-programako neurriak aplikatzeko azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuan ezarritako prozedurak izapidetzeko zenbait epe, martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratutako alarma-egoera aplikatzearen ondorioz. 2020-4103 xedapena - 2 or.

**2020/03/27**

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA**

    - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.** - TMA/292/2020 Agindua, martxoaren 26koa, Garraioaren, Mugikortasunaren eta Hiri Agendaren Ministerioak bigarrenez maskarak eskuratzea eta banatzea arautzen duena. 2020-4128 xedapena - 4 or.

    - **Alarma egoera. Aldi baterako salbuespenak.** – Ebazpena, 2020ko martxoaren 26koa, Lurreko Garraioaren Zuzendaritza Nagusiarena, salgaiak garraiatzen dituztenen gidatze aldiak eta atsedenaldiak betetzea aldi baterako salbuesten duena. 2020-4129 xedapena - 2 or.

- **OSASUN MINISTERIOA. - Alarma egoera. Sendagaiak.** - SND/293/2020 Agindua, martxoaren 25ekoa, Osasun Sistema Nazionaleko eremuan baldintzak ezartzen dituena sendagaiak agintzeko eta administratzeko, COVID-19ak eragindako osasun-krisiko egoeraren aurrean. 2020-4130 xedapena - 2 or.

**2020/03/28**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. - Alarma egoera. Lanaren alorreko neurri osagarriak.** - 9/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 27koa, neurri osagarriak ezartzen dituena lanaren alorrean, COVID-19ak eragindako ondorioak arintzeko. 2020-4152 xedapena - 9 or.

- **GORTE NAGUSIAK. - Alarma egoera. Luzapena.** - Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratutako alarma egoera luzatzeko baimentzeko erabakia. 2020-4153 xedapena - 1 or.

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. - Alarma egoera. Luzapena.** - 476/2020 Errege Dekretua, martxoaren 27koa, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko alarma egoera deklaratzen duen martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak deklaratutako alarma egoera luzatzen duena. – 2020-4155 xedapena - 2 or.

- **OSASUN MINISTERIOA**

  - **Alarma egoera. Gizarte Zerbitzuak. -** SND/295/2020 Agindua, martxoaren 26koa, neurriak hartzen dituena gizarte zerbitzuen alorreko giza baliabideen alorrean, COVID-19ak eragindako krisi egoeraren aurrean. 2020-4156 xedapena - 4 or.
  - **Alarma egoera. Hileta osasuna.** - SND/296/2020 Agindua, martxoaren 27koa, salbuespen neurriak ezartzen dituena hilotzak garraiatzeko, COVID-19ak eragin duen osasun krisiko egoeraren aurrean. 2020-4157 xedapena - 2 or.

**2020/03/29**

- **ESTATUKO BURUZAGITZA. -** Alarma egoera. Premiazko neurriak. - 10/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 29koa, oinarrizko zerbitzuak ematen ez dituzten besteren konturako langileentzako baimen ordaindu berreskuragarria arautzen duena, herritarren mugikortasuna murrizteko, COVID-19aren aurkako borrokaren testuinguruan. 2020-4166 xedapena - 8 or.

**2020/03/30**

- **GORTE NAGUSIAK**

  - **Alarma egoera.** - Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurriei buruzko martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4167 xedapena - 1 or.

  - **Langileen Estatutua. -** Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsia) 52.d) artikuluan lanera ez joateagatik ezarritako kaleratze objektiboa indargabetzen duen otsailaren 18ko 4/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4168 xedapena - 1 or.

- **Premiazko neurriak.**

    - Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila nekazaritzaren eta elikaduraren alorreko zenbait premiazko neurri hartzen dituen otsailaren 25eko 5/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4169 xedapena - 1 or.

    - Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila ekonomiaren alorrean eta osasun publikoa babesteko premiazko zenbait neurri hartzen dituen martxoaren 10eko 6/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4170 xedapena - 1 or.

    - Ebazpena, 2020ko martxoaren 25ekoa, Diputatuen Kongresuarena, zeinaren bidez agintzen den argitara dadila COVID-19aren eragin ekonomikoari erantzuteko premiazko neurriak hartzen dituen martxoaren 12ko 7/2020 Errege Lege-dekretuaren baliozkotze akordioa. 2020-4171 xedapena – 1 or.

- **OSASUN MINISTERIOA**

    - **Alarma egoera. Hileta zerbitzuak.** - SND/298/2020 Agindua, martxoaren 29koa, ezohiko neurriak ezartzen dituena hil-beilei eta hileta zeremoniei dagokienez, COVID-19aren hedapena eta kutsatzea mugatzeko. 2020-4173 xedapena - 3 or.

    - **Alarma egoera. Premiazko neurriak.** – SND/299/2020 Agindua, martxoaren 27koa, zeinaren bidez aldatzen den COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko giza baliabideen eta bitartekoen arloan neurriak hartzen dituen martxoaren 15eko SND/232/2020 Agindua. 2020-4174 xedapena – 3 or.

**E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

**2020/03/25**

- **OSASUN SAILA. -** HUTS-ZUZENKETA, honako agindu honena: Agindua, 2020ko martxoaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, koronabirusak eragindako krisiari aurre egiteko Euskal Autonomia Erkidegoan eskuragarri dauden osasun, kudeaketa- eta boluntariotza-baliabide guztiak kudeatu eta koordinatuko dituen zuzendaritza-batzordea sortzen duena (Covid-19). 1676 xedapena – 2 or.

**2020/03/27**

- **EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA.** - AGINDUA, 2020ko martxoaren 24koa, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baitira bai dirulaguntza itzulgarriak itzultzeko egutegiaren eta inbertitzeko eta enplegua sortzeko aldiaren aparteko geroratze-eskaera, Gauzatu Industria, Bideratu eta Bideratu Berria programen onuradunei dagokienez, eta bai Indartu programako ordainketa aurreratzeko neurriak, Covid-19aren inpaktu ekonomikoari aurre egiteko. 1716 xedapena – 4 or.

- **OSASUN SAILA**

  - AGINDUA, 2020ko martxoaren 24koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoko asistentzia-jarduerari dagokionez eta koronabirusak (Covid-19) eragindako egoeraren eta bilakaeraren ondorioz. 1717 xedapena – 3 or.

  - AGINDUA, 2020ko martxoaren 26koa, Osasuneko sailburuarena, SARS-Cov-2 (Covid-19) delakoak eragindako pandemia dela-eta hileta-osasunaren arloan salbuespenezko neurriak hartzen dituena. 1718 xedapena – 3 or.

**A.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala)**

**2020/03/27**

- **ARABAKO BATZAR NAGUSIAK.** - 3/2020 Foru Araua, martxoaren 20koa, martxoaren 18ko 2/2020 zerga Premiazko Araugintzako Dekretua baliozkotzeko, onesteko premiazko zerga neurriak COVID-19ren inpaktu ekonomikoari erantzuteko. 2020-912 xedapena – 1 or.

- **ARABAKO FORU ALDUNDIA.** - Foru Gobernu Kontseiluaren 155/2020 Erabakia, martxoaren 17koa. Onestea larrialdi deklarazioa, kontratazio prozeduretan COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko. 2020-901 xedapena – 1 or.

**B.A.O. (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2020/03/23**

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** – Ogasun eta Finantzen foru-diputatuaren 663/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 18koa, zeinaren bidez salbuespenezko ordainketa-gerorapena ezartzen baita makina edo aparatu automatikoak erabiliz egiten den jokoaren gaineko Tributurako eta tributu horren gaineko errekargurako. 2020-056 (I-245) xedapena – 2 or.

**2020/03/25**

- **GIZARTE EKINTZA SAILA.** - 18095/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 23koa, Gizarte Ekintzako foru diputatuarena, adinekoentzako egoitzetan eta beste zentro soziosanitario batzuetan garbiketa egiteko neurri osagarriak ezartzen dituena. 2020-058 (I 247) xedapena – 2 or.

**2020/03/30**

- **BATZAR NAGUSIAK**
  - 1/2020 FORU ARAUA, martxoaren 18koa, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Araua aldatzen duena. 2020-061 (I-242) xedapena – 4 or.
  - 2/2020 FORU ARAUA, martxoaren 18koa. Honen bidez, Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 11/2013 Foru Araua aldatzen da, arau hori Europako Batzordearen 2019ko urtarrilaren 8ko Erabakira egokitu dadin portu-agintaritzen tributazioari dagokionez. 2020-061 (I-243) xedapena – 7 or.

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**2020/03/23**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - 126/2020 Foru Agindua, mar txo aren 18koa, batasun barruko eragiketen aitorpen labur tza ileari buruzko 349 eredua eta hura aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak eta tokia, modua eta epea onar tzen dituena. (31 or.)

**2020/03/25**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA. -** 1/2020 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 24koa, COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituena. (6 or.)

**2020/03/27**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** - Akatsen zuzenketa. 1/2020 Foru Dekretu-Araua, martxoaren 24koa, COVID-19 gaitzaren osasun krisiaren ondorioz zerga arloko neurri jakin batzuk onartzen dituena. (1 or.)

**2020/03/30**

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA**

  - 132/2020 Foru Agindua, mar txo aren 26koa, 2019ko zergaldiko per tso na fisikoen errentaren gaineko zerga eta ondarearen gaineko zerga autolikida tze ko ereduak onartu, eta aurkezpena eta diru-sarrera egiteko moduak, epeak eta tokiak ezar tzen dituena. 127 or.

  - 92/2020 Foru Agindua, mar txo aren 5ekoa, 2019ko Errenta eta Ondarea aitort zek o kanpainako zerbit zue n karta onart zen duena. 9 or.

**E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala):**

**2020/03/24**

- 2020/430 (EB) Erabakia, 2020ko martxoaren 23ko Kontseiluarena, Kontseiluaren barne-erregelamenduaren aldi baterako salbuespenari buruzkoa, Batasunean COVID-19ak eragindako pandemiaren ondorioz bidaiatzeko zailtasunak direla-eta. LI 88/0I

**2020/03/25**

- 2020/437 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko martxoaren 24ko Batzordearena, Kontseiluaren 93/42/EEE Zuzentarauaren babesean egindako osasun produktuei aplikatu beharreko arau bateratuei buruzkoa. LI 90/0I

- 2020/438 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko martxoaren 24ko Batzordearena, Kontseiluaren 90/385/EEE Zuzentarauaren babesean egindako osasun produktu inplantagarri aktiboei aplikatu beharreko arau bateratuei buruzkoa. LI 90/25

- 2020/439 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko martxoaren 24ko Batzordearena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 98/79/EE Zuzentarauaren babesean egindako *in vitro* diagnosirako osasun produktuei aplikatu beharreko neurri bateratuei buruzkoa. LI 90/33

- 2020/440 (EB) Erabakia, Europako Banku Zentralarena, 2020ko martxoaren 24koa, pandemia egoerarako aldi baterako larrialdiko erosketa programa bati buruzkoa (BCE/2020/17). L91/1

- 2020/440 (EB) Erabakia, Europako Banku Zentralarena, 2020ko martxoaren 24koa, Europako Banku Zentralaren 2016/948 (EB) Erabakia (bono korporatiboen erosketa-programa gauzatzeari buruzkoa) aldatzen duena (BCE/2020/18). L91/5

**2020/03/30**

- 2020/454 (EB) Betearazpen Erabakia, 2020ko martxoaren 27ko Batzordearena, 2020/47 (EB) Betearazpen Erabakiaren eranskina aldatzen duena, zenbait estatu kidetan H5N8 azpimotako patogenotasun handiko hegazti-gripearen aurkako babes-neurriei buruzkoa. [Jakinarazpena: C(2020) 2013] ( 1 ) zenbakia]. L 95/8

Kepa Bilbao Zubiaur
Tfno.: 94 425 25 15   Fax: 94 423.22.95
e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL N.º 2
HENAO, 26 - 48009 BILBAO